

#DONOSTIA
#SAN SEBASTIÁN **FESTAK**

2019

Aste Nagusia

Semana Grande

Donostia

San Sebastián

Abuztua 10-17 Agosto



Jose Ramón Luna de la Osa

 donostia**kultura**

 DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

PRENTSA OHARRA

ASTE NAGUSIA 2019 SEMANA GRANDE

2019ko Aste Nagusiko programazioak ikusle mota anitzentzako jarduerak izango ditu.

Udako festetan ezinbestekoak diren jarduerak ez dira faltako: erraldoi eta buruhandiak, suzko zezena, kanoikada, su artifzialak edo Sagueseko kontzertuak.

Udan ohikoak ditugun kirol-jarduerak ere antolatuko dira, hala nola, hondartzako boleibola, waterpoloa, kayak eta piragua itsasaldiak edo urpeko bataioak; Urrezko Kopa bezalako desafioak, Igeldoko Harria, eta gero eta ezagunagoak diren goitibeherak. Gainera, familia eta lagunekin edo bakarrik gozatzeko, bizikleta-patinen martxa edo Nordic Walking travesia izango ditugu. Ezin ditugu ahaztu urte osoan zehar praktikatzen ditugun kirolak: futbola eta saskibaloia. Bi modalitate hauetan, parte-hartze mistoa egin daiteke.

Horrez gain, programak modu pasiboan parte hartzeko aukera ematen duten jarduerak ere barne hartzen ditu, hainbat talde eta artistek eskainitako proposamenetan: txistularien alardea, folklore-ikuskizunak, kale-antzerkia... festaz gozatzeko beste modu bat da.

Eta zer izango litzateke Aste Nagusia MUSIKARik gabe? XXX eszenario izango ditugu, hiriko hainbat txokotan banatuta, abuztuko gauetan aire librean musika-estilo anitzez giza ahal izateko. Easo Plazako Camp dantzaldietatik hasi eta Sagueseko kontzertu handietara arte, Kurasaaleko terrazako tokiko eskaintzatik edo Boulevardeko taldeetatik igarota.

Azken batean, gure Aste Nagusiaren ezaugarri esanguratsua da gero eta artista, elkarte, dantza-talde edota eskola gehiagori ematen diela aukera, beren ikuskizunak eskain ditzaten ikusle paregabeari, programako jarduera guztiez gozaten baitute.



2019KO PROGRAMAKO JARDUERA BERRIAK

GAZTE NAGUSI HOLI FEST

Eguna: Abuztuak 10

Ordua: 19.20

Lekua: Boulevard (eszenatokia Udaletxearen balkoiaren azpian)

Gazteentzako festa (14 eta 22 urte bitartekoentzat), kanoikada bota ostean Aste Nagusiaren festa-programari emango dio hasiera.

Oihan Vega (Euskadi Gazteko DJa), Ainhoa Larrañaga eta María Redondo (Goazen) izango dira festaren dinamizatzaileak, festa ezberdin bat bizitzera datozen gazte guztiak dantzan jarriko dituzte, berdintasunean, alkoholik gabe, erasorik gabe eta errespetu gabeko edo larderiazko jarrerarik gabe.

Horretarako, festa alai eta herrikoienetako bat "inportatu" dugu, Indiatik: Holi Festa. Helburu argia du: kolore biziz ahalik eta gehien zikintzea.

Festan zehar, parte-hartzaileek kolore ezberdinetako hautsak botako dituzte airera, baita beren buruari edo lagunei ere, musikarekin batera dantzatzen duten bitartean. Dibertsio, kolore, ur eta musika gudua izango da, ikusgarria, magikoa eta ahaztezina.



Hainbat “Holi une” egongo dira festan zehar eta, horietan, atzera zenbaketa batek adieraziko die parte-hartzaileei noiz bota behar dituzten beren Holi hautsak airera.

Festan botatzen diren hautsak erraz garbitzen dira eta ez dira azalarentzako kaltegarriak. Hala ere, eguzkitako edo uretako betaurrekoak eramatea gomendatzen da, baita ilea estaltzea ere, txapel, ileorde edo zapi baten bidez.

Antolakuntzak, Udaleko **Berdintasun eta Gazteria** sailekin elkarlanean, parte-hartzaileei kamiseta zuri bat, eskumuturreko bat, festetako zapi bat eta koloretako hautsak emango dizkie, festan aktiboki parte hartzeko.

Koloretako hautsez lohitzeez gain, festaren ondoren urrezko “mahuka” egiteko aukera dago, hiriko **suhiltzaileen** laguntzari esker.

Eroskik, bere aldetik, zapore ezberdinetako zukuak eskainiko ditu, eta doan banatuko dira festaren amaieran, indarrak hartzeko.

Oharra: Ez baduzu zikinduta amaitu nahi, ez pasa Boulevardetik 19:15etik 21:00etara bitarte. Erabili beste bide batzuk Alde Zaharrera joateko: Kontxako Paseoa edo Elkano-Boulevard Oinezko bidea.

ESKUKO PILOTA HAURRENTZAT, AITZOL PARKEAN

Eguna: Abuztuak 14

Ordua: 11.30-13.30

Abuztuaren 14an, 11:30etik 13:30era, Trinitate Plazan egin ohi diren pilota-jarduerak Amarako Aitzol Parkeko instalazioetan dagoen frontoi txikira pasako ditugu.

Amarako hurrek eta bertaratu nahi den orok ahalko dute gure kulturako kirol adierazgarri honekin gozatu.

Jardueran parte hartzeko adin egokiena 6 eta 10 urte bitartekoa da.



GAUEKO KONTZERTUA KONSTITUZIO PLAZAN: TOSTA

Eguna: Abuztuak 14

Ordua: 23.30

Ontziaren bankada esan nahi du Tosta izenak, Europako Atlantikoko kostaldeko hizkuntza gutxitu askotan aurkitu daiteke.

Kultura hizkuntza gutxituetako hiztunez osatuta dago Tosta Banda, eta herrialde bakoitzeko musika tradizio aberatsak jartzen dituzte komunean. Kide guztiak ibilbide ezaguneko musikariak dira haien herrialdeetan; haien artean daude Oreka TX taldekideak. Dantza eta musika Kukai Dantza Konpainiako bi dantzarien eskutik uztartzen dira.

Kontzertu-ikuskitzuna paregabea, originala, txikitasunaren eta dibertsitatearen garrantzia bistarazten duena, musika eta dantza mailan indartsua eta eszenikoki zaindua.

"... Jakin bait dakite txikiak izanik ere..., ¡Elkarrekin sumendia garela!"

Partaideak:

- **OREKA TX.**
- **Harkaitz Martinez de San Vicente** eta **Mikel Ugarte** (egurrezko eta harrizko txalaparta)
- **Mixel Ducau** (alboka, ttun ttun, egurrezko klarineta, saxofoi sopranoa eta gitarra akustikoa)
- **Iñigo Egia** (perkusioa)
- **Rona Wilkie, ESKOZIA** (ahotsa eta biolina)
- **Monica de Nut, GALIZIA** (ahotsa eta panderoa)
- **Gwilym Bowen Rhys, GALES** (ahotsa, gitarra akustikoa eta mandolina)
- **Marit Talens, FRISIA** (ahotsa)
- **Ixi Jauregi** (ahotsa eta txalaparta)
- **KUKAI** dantza taldeko **bi dantzari**



IRUNGO ERRALDOIEK DONOSTIAKO ERRALDOIAK BISITATUKO DITUZTE

Eguna: Abuztuak 15
Ordua: 12.30 eta 18.00

Irungo erraldoi-konpartsa 1947an sortu zen, eta zortzi figura ditu, honako hauek:

ALKATEAK
BIKOTE BASERRITARRA
BIKOTE TURKIARRA
BIKOTE AFRIKARRA

zaharberritu egin dituzte osotasunean, eta ordudanik beste hiri bat bisitatzen duten lehenengo aldia izango da. Jarduera honetan Irungo Atsegiña eta Itzurun konpartsen arteko senidetzea emango dela esan genezake. Hautatutako egunak, gainera, beste elementu bat du: Boulevardean eskainiko den kontzertua Irungo Bandak emango du, eta lehenengo abestia konpartsek dantzatuko dute, 19:30ean.

Honako hau izango da egun horretako **programa**:

- 12.30 Donostia eta Irungo erraldoi-konpartsak hiri-erdigunean. Irteera Zuloaga plazatik.
- 15.00 - 18.00 Donostia eta Irungo erraldaien erakusketa Gipuzkoa plazan (Aldundia). Etor zaitetz eta atera argazkia zure erraldoi gogokoenarekin!
- 18.00 Donostia eta Irungo erraldoi-konpartsak hiri-erdigunean. Irteera Gipuzkoa plazatik.
- 19.30 Donostia eta Irungo erraldoi-konpartsek Irungo Bandaren kontzertuari hasiera emango diote.
- 19.40 Donostia eta Irungo erraldoi-konpartsak Alde Zaharreen barna.



MARIATXI KALEJIRA GROS AUZOKO KALEETAN

Eguna: Abuztuak 16

Ordua: 19:00

Imperial Elegancia Mexicana Mariatxiak kalejira egingo du Gros Auzoko kaleetan barna.

Mariatxi hau Mexikokoa da eta hamar pertsonak osatzen dute: zortzi musikari eta dantza-bikote bat. Ikuskizuna Mexikoko folklorearen hainbat zonaldeko abesti ezagunekin dinamizatzen dute.



IFK-CIF 020005411

Tomas Pitayo jn. da zuzendaria, Mariatxi ezagunetan ibilbide musikala egin duena (Rocío Durcal eta Luis Miguelekin, esaterako). Espainian barna ere birak egin ditu, 2000. urtetik hasi eta gaur egunera arte.

Abuztuaren 16ko kalejiran ez dira faltako “Caballo Prieto Azabache”, “El Rey” edo “Las mañanitas” abesti ezagunak.

Gauean, 23:30etik aurrera, ikuskizuna eskainiko dute Katalunia Plazan.

BILBOK DONOSTIA BISITATUKO DU

Eguna: Abuztuak 17

Ordua: 23:30

Katalunia Plazan, asteari amaiera emateko, "LOS 5 BILBAÍNOS" ikuskizuna antolatu da, "bilbainadak" entzuteko aukera paregabea.

Ekimen hau, lehendabiziko aldiz, 2004. urteko Aste Nagusian antolatu zen, eta arrakasta handia izan zuen. 2019 honetan, errepikatu egin nahi dugu, berriz ere donostiarren txalo-zaparrada lortuko dutenaz ziur.

Musika herrikoi talde ikusgarritzat hartuak, bere erreperitorioan musika euskalduna nabarmentzen da, batez ere, zortziko erritmoak (zerbaitegatik bere 5/8ko konpasa, bakarra munduan, da gure musika-kultura identifikatzen duen erritmo gutxietako bat). Baina bere katalogoan habanerek, jotek, pasodobleek, boleroek, txotisak eta noski, bilbainadas-ak bere lekua dute ere.

Gainera, partaideen trebeziari esker, publikoak eskatzen badu, bossa, blues, jazz... piezak abesteko gai dira.



ARTE NAGUSIA, EMAKUMEAK ARTEA SORTZEN

Aste Nagusiko egun guztietan, Kontxako Paseoan, 16:00etatik 21:00etara, Kultur Alternatiboa emakume taldeak bere arte-lanak erakutsiko ditu. Lehen orduan, saio parte-hartzaileak antolatuko dituzte, beren adierazpen artistikoekin lotutakoak.

Honako hauek izango dira artistak eta eskainiko dituzten saioak:

- Susana Urquía:** Argazki-muntaiaren erakusketa, Kontxako badian.
Saioa: collage parte-hartzailea, adin guztientzat.
- Rosario C. Vidal:** Pintura erakusketa, Inspirazioaren musak.
Saioa: haurrekin marrazten.
- Soraya García:** Pintura eta karikatura erakusketa.
Saioa: Karikaturei buruzko master class, adin guztientzat.
- Maritxu Insausti:** Pintura erakusketa
Saioa: Mimemu, enbalatzeko paperarekin murala marrazten, adin guztientzat.
- Marta Marugan:** Erakusketa: Kaligrafia tinta txinatarrarekin.
Saioa: Kaligrafia teknika, adin guztientzat.
- Zita Ayala:** Erakusketa: Natural Simbiosis, tela-birziklapena, aurpegi eta oinen irudiekin.
Saioa: Birziklatutako materialarekin eta gorputzarekin lantzea, adin guztientzat.
- Gladys López:** Erakusketa: Donostia hatzekin marrazten.
Saioa: Eskuekin paisaiak marraztea, haurrentzat.



IZENA EMATEA BEHAR DUTEN JARDUERAK

Aste Nagusiko jarduera batzuk parte-hartzaile kopuru mugatua dute, bermeak bete izateko. Gastronomiako jarduerak, kirol-jarduera batzuk (zozketa bidez hautatzen direnak) edo antolakuntza aldetik parte-hartzea sustatzen dutenak (su artifizialeko epaimahai gaztea).

Donostia Festak-ek antolatutako jardueretan izena emateko, www.astenagusia.donostiakultura.eus webgunera jo ezazu.

Izena emateko epea abuztuaren 2an amaituko da.



Hauetako dira izena ematea behar duten jarduerak:

- Su Artifizialen Epaimahai Gaztea
- Gazteentzako gastronomia-lehiaketa
- Legatza saltsa berdean gastronomia-lehiaketa
- Arkume-menestra gastronomia-lehiaketa
- Paella gastronomia-lehiaketa
- Marmitakoa gastronomia-lehiaketa
- Bizikleta Festa
- Futbol 5 torneo azkarra
- Arrantza-txapelketa
- Goitibeherak
- Sagueseko Backstage zozketa
- Mugikortasun urriko pertsonentzako erreserbatutako espazioa eskatzea Sagueseko eszenatokian.

Webgune horretan bertan dago Donostia Festak-en elkarte laguntzaileek antolatutako jardueretan izena emateko beharrezko informazioa.

ASTE NAGUSIKO FERIALAK

ASTE NAGUSIKO FERIALEK ZARATARIK GABEKO LAU ORDU IZANGO DITUZTE

Helburua: autismoaren espektoaren nahasteak dituzten adin txikiko eta helduek atrakzioez gozatzea.

Neurri hori hartzea erabaki da, pertsona horiek sentiberatasun handia baitute argi, zarata edo bolumen altuko soinuen aurrean. Azokako musika edo atrakzioen sirena-hotsen kasua litzateke hori.

Aurten Donostia eta Azpeitia izan dira ferialak inklusiboagoak izateko lehen urratsa eman duten udalak.

Donostian gure festak urtez urte irisgarriagoak izatea nahi dugu, eta nahaste horiek dituzten haurrak dituzten familiek edo, helduek ere, bi egunez atrakzioez gozatzeko aukera izatea, lasaitasun osoz. Bolumen altuko musikaren moduko zaratak tortura izan daiteke autismoa daukan pertsonarentzat, antsietate-krisia, blokeoak, izu-krisiak eta, baita ere, mina eragin baitezakete.

Neurri hori "Asociación de Feriantes Autónomos de Euskadi" elkartearen laguntzari esker hartu ahal izan da.

Ekimena Alderdi Ederreko noriari gehitzeko elementua izango da, berau mugikortasun urriko pertsonentzako erabat irisgarria baita.

Ekimena honako egun hauetan egingo da:

Abuztuak 9, atrakzioak prezio murriztuan dauden eguna, 17:00etatik 19:00etara.

Abuztuak 13, 17:00etatik 19:00etara.



ASTE NAGUSIAN ZEHAR, PASEO BERRIAN INSTALATUKO DEN FERIALEAN MUSIKA EZ SEXISTA ENTZUNGO DA

Helburua: pertsona orok festak askatasunean gozatzea, mezu desegoki, intolerante eta sexistengatik erasotutako sentitu gabe. Gizarte berdinzale baten alde lan egitea, pertsona guztien eskubideak errespetatu daitezkeen, baita festetan ere.

Emakundek "Beldur Barik 2019" kanpaina egindako lanaz baliatuta, eta Asociación de Feriantes Autónomos de Euskadi elkartearen laguntzaz, Paseo Berrian instalatuko diren azokek mundu mailan ezagunak diren eta entzule askok ezagutzen dituzten artisten artean hautatutako 160 abestiko erreperatorioa dute eta, baita festetan ere, berdintasun- eta errespetu-helburuak betetzen dituzte.

Hainbat abesti ezagunen artean, besteak beste, honako hauek entzun ahaliko dira: Telephone (Lady Gaga), Je veux (Zaz), Ni izateko (Kashbad), Lotsarik Gabe (Berri Txarrak), Malamente (Rosalía), Sexu Makina (Negu Gorriak) eta lo Malo (Aitana-Ana Guerra).

ALDERDI EDERREKO NORIAK PREZIO HERRIKOIAK IZANGO DITU ASTELEHENERO

Pasa den 2018an, Noria-Begiratokia instalatu zen Paseo Berrian. Arrakasta handia izan zuen eta, festak amaituta, aste bat gehiagoz egon zen instalatutako lekuan.

Aurten, noria Alderdi Ederren instalatuko da, Andia kalearen aldean. Bertan kokatzea, gure festetako bisitarientzat erakargarria, egokia eta berezia izango dela uste dugu, zehazki, ezaugarri hauek direla eta:

- 1.- Azken belaunaldiko Noria-Begiratokia da (2018an eraikia)
- 2.- Kabina guztiak dira [irigarriak mugikortasun urria duten pertsonentzat, edo mugitzeko gurgildun aulkia behar duten pertsonentzat](#).
- 3.- Kabina guztiek dute [aire girotua](#), eta modulatzeko aukera du. Temperatura kanpoan dagoen bero/hotzaren arabera ezarritakoaren arabera aldatzen da.
- 4.- Kabinak [itxita](#) daude, eta [360 graduko](#) ikuspegi panoramikoak eskaintzen du, behar bezala erortzeko arriskurik izan gabe.
- 5.- Biratzeko, [azken belaunaldiko teknologiarekin egindako frekuentzia aldatzeko sistemak](#) erabiltzen ditu, eta kontsumo elektrikoa nabarmen murrizten du. Hala, eraginkortasun elektriko handiena lortzen da Noria osoa funtzionamenduan dagoenean, eta iraunkortasunaren aldeko mezua, benetakoa eta positiboa, festetan ere zabaltzen da.
- 6.- Atrakzioa "Noria-Begiratokia" izenarekin definitzen da eta, horrek, ohiko "feria-atrakzioen" alioan balio erantsia ematen dio, Espainiako hiri eta herri gehienetako festetan instalatzen diren alioan. Halako antzerako atrakzioak [leku enblematikoetan instalatuta egon ohi dira](#), denbora

luzez, eta ez da oso ohikoa leku batetik bestera hilabete eta erdiko kanpainak egiteko mugitzea (adibidez, Malagako Portua, Sanlucar de Barrameda,...)

7.- [LED argiztapena kontsumo baxukoa](#) da.

8.- 2018an eraiki zenean, [Europako UNE-EN 13814](#) zehaztapen teknikoaren arabera egin zen, eta horrek segurtasun-maila handia ematen dio atrakzioari.

9.- Azkenik, eta diseinuari dagokionez, egiturak itxura zirkularrak ditu oinarri, eta Europan [irudi berezi eta berria](#) ematen dio atrakzio mota honi.

Noriara igotzeko prezio orokorra 4,5 eurokoa izango da. Hala ere, astelehenetan prezioa 2,5 eurokoa izango da. Prezio murriztu hori funtzionamenduan dagoen lehenengo eta azken egunetan ere aplikatuko da (abuztuak 1 eta irailak 8).



ASTE NAGUSIAN PASEO BERRIKO FERIALAK BI ATRAZIO BERRI IZANGO DITU

Aurten, Paseo Berriko azokak bi atrakzio mekaniko berri izango dituzte: [Super Mega Bross](#) eta [Gigant Maxx](#). Zalantzarik gabe, gazte eta helduek izugarri gozatuko dute.

Bi atrakzioek,aldi berean pertsona gutxi har baititzakete, beste atrakzioek baino prezio altuagoak izango dituzte, 4 eta 4,5 eurokoa, hurrenez hurren.

Atrakzio hauen prezio murriztua, abuztuaren 9 eta 19an, 2,5 eurokoa izango da.

Gainerako atrakzioek ez dute 3,5 euro baino gehiagoko prezioa izango. Bi egunetan (abuztuak 9 eta 19) prezioa 2 eurokoa izango da.



HAURRENTZAKO FERIALA, HIRIKO HAINBAT FESTA-ESPAZIOTAN EGONGO DA SAKABANATUTA

Haurrentzako ferrialaren hemendik egongo da:

- [Koldo Mitxelena](#), bi atrakzio berriekin: [Scalextric](#) eta [Crazy Jump](#)
- [Katalunia Plaza](#)
- [Easo Plaza](#)

Atrakzio hauen gehienezko prezioa 2,5 eurokoa izango da, eta 6 bidaietzako abonamendua erosi ahalko da, 12 eurotan.

Hiru egunetan (abuztuak 9-19 eta 25) prezioa 1,5 eurokoa izango da.

Haurrentzako ferrialak adierazitako lekuetan egongo dira abuztuaren 9tik 25era bitarte.

ASTE NAGUSIAREN HAINBAT ZIFRA

Festarako espazioak: hiriko **30** espazio ezberdinetan antolatuko dira jarduerak Aste Nagusian zehar.

Jarduerak: **491**, horietatik 334 Donostia Festak-ek programatu ditu, edo herri elkarteekin batera.

Programan aktiboki parte hartzen duten elkarteak: **44**

Musika-jarduerak: Zuzeneko musika duten **101** ikuskizun

Kale-antzerkia: **7** ikuskizun

Haur-familiantzako jarduerak: Formatu ezberdineko **40** jarduera

Kirol-jarduerak: **30** modalitate ezberdin

Gastronomia-lehiaketak: **5**

Zinema hondartzan: **5** saio



ASTE NAGUSI JASANGARRIA, IRISGARRIA, SEGURUA...

JASANGARRITASUNA

2019 honetan, Coca Cola Iberian Partners eta Donostia Festak elkarlanean arituko dira, festetan jasangarritasunari bultzada berri bat emateko.

Hiru izango dira lankidetzaren honen ekintza nagusiak:

- 1) Bi entitateek, elkarrekin, 15.000 edalontzi berrerabilgarri ekoiztuko dituzte, Aste Nagusian erabiltzeko. Edalontzi horiek eskuratzeko derrigorrezkoa izango da festetan instalatzen diren edari-hornidurako puntuetan edaria eskatzeko. Tomás Alba plazako txoznek (Sagues), Kursaaileko terrazetako food truck-ek eta gastronomia-lehiaketek nahikoa edalontzi berrerabilgarri izango dituzte, eta bide publikoko hondakinak nabarmen murrizten laguntzea espero dugu. Gainera, beirazko edalontziak erabiltzeagatik gerta daitezkeen ebakiak ekidingo dira.
- 2) Nautikoko guneko urpeko lanak indartuko dira, eta kaiko lehenengo morru inguruko itsas-hondoa garbituko da. Bildutako arrastoak Nautikoko albo bateko terrazan instalatuko den karpan erakutsiko dira.
- 3) Edari edota janaria kontsumi daitezkeen jarduerak dituzten espazioetan Coca Colak emandako birziklapen-erakundeak jarriko dira.



Aste Nagusian zehar jasangarritasunaren aldeko egingo ditugun ekintza orokorrak horrela labur ditzakegu:

.- Edalontzi berrerabilgarriak erabiltzea: eros ezazu edalontzia euro baten truke, eta edalontzia itzultzean itzuliko dizugu euroa. Hala, bide publikoan hondakin kopurua murriztea lortuko dugu, eta festetan gure kaleetan garbitasuna mantentzen lagunduko du.

.- Aste Nagusiko gastronomia-espazio guztietan erabilitako olio biltzea, birziklatu eta beste erabilera batzuetara bideratzeko. Ekintza horri esker, urak tratatzeko sare publikora sustantzia kutsagarriak isurtzea ekidingo da.

.- Gastronomía-espazioetako erabiltzaileei sortzen dituzten hondakinak (beira, papera, organikoa...) birziklatzeko behar dituzten elementuak emango zaizkie.

.- Kontrataturako energia elektrikoa % 100 berriztagarria den energia-iturrietatik dator.

.- Komun publiko kopurua handituko da festetan zehar, eta festa-espazioetan barna 72 komun kimiko jarriko dira, guztira.

.- Donostiako Aste Nagusian egingo diren bost gastronomía-lehiaketetan prozesatu gabeko eta gertuko lehengaiak erabiliko dira, eta leloa "Sukaldata J&J: jangarri eta jasangarri" izango da.

.- Eta, gainera, Aste Nagusiak jarduerak zabaltzeko euskarri berriak bilatzen ditu, gero eta paper gutxiago erabiltzeko! Programa kontsulta daiteke www.astenagusia.donostiakultura.eus webgunean eta Euskaltekin lankidetzan egindako aplikazioan (Android eta iOS).

IRISGARRITASUNA

.- Aste Nagusiko festa-espazio guztietara iris daiteke garraio publiko bidez, bizikleta bidez, edo oinez.

.- Zerbitzu bereziak ere egongo dira, programaturako ekimenak amaituta, etxera autobus edo aldiriko tren bidez itzultzeko (Dbus zerbitzu bereziak eta Euskotren).

.- Sagueseko eszenatokiak erreserbatutako espazio bat izango du mugikortasun urria duten pertsonak kontzertuetara joateko.

.- Ikuskizunak eskainiko diren espazio guztietan beharizan ezberdinak dituzten pertsonak artatzeko erreserbak daude.



.- Ondarretako hondartzan eskainiko diren pelikula guztiek dituzte azpigituluak, baita "bukle magnetiko" sistema ere, behar dutenei entzutea errazteko. Mugikortasun urria duten pertsonentzako pasabide bat ere egongo da.

.- Atrakzio-guneek zaratarik gabeko bi egun izango dituzte (ikus feriaten inguruko atala)

ETA, GAINERA, GURE HIRIKO ZEHARKAKO POLITIKAK APLIKATZEKO

- “Baietzik gabe ezetz da” kanpainarekin bat egingo dugu, eta Donostia Festak-en zuzendaritzapean Aste Nagusian lan egiten duten pertsona guztiek jarduteko protokoloak ezagutzeko ahalegin berezia egingo da.
- Gure jardueretan euskara hizkuntza nagusia izatea sustatuko dugu, bereziki haur eta gazteei zuzendutako jardueretan.
- Bisitariekin enpatizatzeko gure jarduerak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez aurkeztuko ditugu.



Ondoko hauei esker aste nagusiaz gozatzen dugu:

Disfrutamos de la semana grande gracias a:



SIENTE EL SABOR™



EL DIARIO VASCO

**SUPER
AMARA**

Baita ere laguntzen dute:

También colaboran:



INSALUS

